



Mutrikuko Udala

2024KO UMEEN MARRAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

LH2RA ARTE:
AMAIA URRUZUNO BURGOA



LH3 - LH6:
LAIDA ARRUABARRENA AZKUE



Mutriku herria, Mutriku maitia, Mutriku guria!

Mutrikuarrok hainbeste maitxe ditzugun jaixak aillau dia. Udaletik buru belarri aritxu gera danontzako jaixak antolatu nahixan eta herrigintzan diharduten eragilei esker, Malenetako egitarau aberatsa osatu degu.

Zuetako asko, jaixetan ere lanian aritxuko zeate, danborradak antolatzen, kaliak musikaz eta dantzaz betetzen, kirol ikuskizunetan parte hartzen, txosnetan lanian, mokaduak prestatzen, kaliak garbitzen,... ume, gazte eta helduen gozameneako. Eskerrik asko dano!

Ondo pasatzia izango da danon helburua, baina, beti errespetua bidelagun hartuta. Mota guztixetako erasuen aurka azalduko gea eta Mutrikuk ez deu inolako erasorik onartuko!

Zaindu zeure lagunak, zaindu zeure burua eta zaindu herrixa, danon artian zaintzen bagea jaixak hobiaguak izango dia eta. Falta dianak goguan hartuta, Ondo pasatu Malenak!



alkatea

Ainhize Azpiazu
Azkarraga

*ondo pasa Malenak!
gora Mutriku!*

Elkarte eta eragile hauen elkarlanari eta konpromisoari esker egin dira Malenetako ekitaldiak:

Bizixo jai konpartsa · Erraldoi eta Buruhandien konpartsa

Txistu taldea · Gure Ametsa dantza taldea

Mandazketa elkarte · Musika Banda · Azkia Pilota Taldea

Hogar del Marinero elkarte · Danok Bat elkarte

Mutrikuko sokatira taldea · Arte Eskola

AHOLKUAK

- Jaietan ondo pasatzeko eta gozatzeko elkar errespetatu eta elkar zaindu. Denon esku dago denon gustoko jaiak izatea.
- Beldurrarazte, jazarpen eta indarkeriazko jokabideak salatu.
- Alkoholarekiko jarrera arduratsua izan.
- Edaten baduzu ez gidatu.
- Erabili garraio publikoa.
- Erabili komun publikoak.
- Zaindu zeure gauzak: ekidin balio handiko gauzak eramatea, jende asko dagoen lekuetan lapurretak gertatzea edo zerbait galtzea ohikoa izaten da eta.
- Zure adiskideek jakin dezatela zure planen berri.
- Norbaiti zerbait gertatuz gero, eskaini zure laguntza.
- Neurtu bolumena, gauez deskantsatu nahi dutenak ere badaude eta.

GOGORATU

- Udalak eskubidea izango du ekintzaren bat aldatzeko, programatik kentzeko edo bertan behera uzteko, ezinbesteko arrazoiak baldin badaude.
- Jaietan hainbat pertsonen lanean dihardute gainerakook jaiez goza dezagun, eta denon ardura da lanean ari direnak errespetatzea eta haiek emandako irizpideak betetzea.
- Mutrikuk ez du eraso matxista, arrazista, homofobo eta transfoborik onartzen.
- Debekatuta dago eszenatokien gainean edo azpian egotea.
- Debekatuta dago 16 urtetik beherakoek sokamuturrean parte hartzea.
- Debekatuta dago alkoholaren edo bestelakoen eraginpean sokamuturrean parte hartzea.
- Debekatuta dago 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea.

UZTAILAK 19

LARUNBATA

- 12:00 Ondoren** | **Pala txapelketako finalak Egaña Gunean**
Karro-poteoa Egaña Gunetik hasita
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa
- 14:00** | **Txupina eta omendua**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa
- 14:30** | **Gazte argazkia txosnagunean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa
- 15:00** | **Bazkaria Egaña Gunean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa
- 18:00** | **Txaranga a la mutrikuarra Gaztetxetik hasita**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa
- 19:00** | **Txosnen irekiera**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa
- 20:00** | **MARIMATRAKA batukada feminista:**
ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE!
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa
- 22:30** | **IZAKI GARDENAK kontzertua Goiko plazan**
- 00:00 Ondoren** | **AKEER taldearen kontzertua txosnagunean**
MALAKIAS MX3
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

UZTAILAK 20

IGANDEA

- 13:00** | **TXIRI-TXIRI taldearekin kalejira**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa
- 18:00** | **Dantza emanaldia txosnagunean:**
BIZIDANTZAN
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa
- 20:00** | **LA JOEDERA taldearen kontzertua txosnagunean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

MALEN BEZPERA

MOZORRO EGUNA



UZTAILAK 21
ASTELEHENA



16:00 | **Txantxangorrirekin aurpegi margoketa eta umeentzako jolasak**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa



18:00 | **Malen jaien txupinazoa**
Ondoren | **Erraldoi eta buruhandien konpartsaren eta txistu taldearen kalejira**

19:00 | **Dultzaineroen kalejira**

19:00 | **Malenetako esku-pilota jaialdia**
Pilotariak:
Urmeneta eta Elizegi, Mikel Goñi eta Alduntzinen aurka
Beñat Zearra eta Alain Tx, Jon Cid eta Ibai "Ibiritxo"ren aurka
Sarrera: 5€
Antolatzailea: Azkia pilota taldea

19:30 | **Bezperak eta Salbea Jasokunde Andre Mariaren parrokian**

20:00 | **Larrain dantza herrikoia Goiko plazatik Beheko plazara**
Gure Ametsa dantza taldearen eskutik

Iluntzean | **Antzerkia: And the Oscar goes to... Bizixo!**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

23:00 | **Danborrada Mandazketa elkartearen eskutik**
Ondoren | **DJ RIKKI Goiko plazan**

00:30 | **Playback txapelketa**
Ondoren | **Jolasak txosnagunean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

ASTEARTEA
UZTAILAK 22



MALEN
EGUNA

10:00 | Diana Musika Bandaren eskutik

11:00 | Meza Nagusia Jasokundeko Andra Mariaren parrokian



**11:30
14:00 | Haur parkea Egaña Gunean**

13:00 | Musika Bandaren kontzertua Goiko plazan



**17:00
19:30 | Haur parkea Egaña Gunean**

18:00 | Sokamuturra

Ondoren | Herri kirolak Goiko plazan

Aizkolariak:

Mikel Larrañaga eta Ugaitz Mugerza

Julen Alberdi "Txikia IV" eta Aratz Mugerza

Elkarren aurka lan desberdinak:

Aizkoran zutik, aizkoran horizontal eta lan konbinatuak

Harria jasotzen:

Udane Ostolaza, Xuhare Urruzuno eta Inhar Urruzuno

Harri mota desberdinen erakustaldia

20:30 | ARRATIANS taldearen kontzertua txosnagunean

Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

**23:00
Ondoren | Su artifizialak
FAN AND GO erromeria Goiko plazan**

**23:30
Ondoren | GANIBET taldearen kontzertua txosnagunean
KAPARRAK taldearen kontzertua**

Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

MALEN

UZTAILAK 23
ASTEAZKENA

TXIKI
EGUNA



ELKARTASUN
EGUNA



10:00 Umeen marrazki lehiaketa Goiko plazan



11:30 Haur parkea Egaña Gunean
14:00



12:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsaren eta txistu taldearen kalejira
Ondoren Umeentzako herri kirolak Goiko plazan
Mutrikuko Sokatira taldearen eskutik

13:00 Kantupoteoa
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

15:00 Bazkari herrikoia txosnagunean
Ondoren Kanturreua
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa



17:00 GARBIJAI ikuskizun parte-hartzailea Zabel plazan

17:00 Txikien Madalen txapelketako finalak Miruaitz frontoian
Danok Bat elkartaren eskutik



17:00 Haur parkea Egaña Gunean
19:30



20:00 Umeen danborrada
Hogar del Marinero elkartaren eskutik



21:30 GO!AZEN karaokea Goiko plazan

21:30 SELEKTAH STEPI txosnagunean
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

KUADRILA EGUNA

UZTAILAK 24
OSTEGUNA





11:30 | **Haur parkea Egaña Gunean**
14:00

12:15 | **Futbito zezenekin Goiko plazan**

13:00 | **LATUNA BANDO txaranga**
15:00

15:00 | **Bazkaltzeko espazioa txosnagunean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa



17:00 | **Haur parkea Egaña Gunean**
19:30

18:00 | **Sokamuturra**

18:00 | **DJ WENDI+MJPO Zubixan**
Eginahala elkartearen eskutik

20:00 | **GOZZUE taldearen kontzertua txosnagunean**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

21:00 | **Sasoia elkartearen alkohol kontsumoaren prebentzio**
01:00 | **kanpaina Barrenkalen**

22:30 | **SÜNE taldearen kontzertua Goiko plazan**

23:30 | **LAKET erromeria txosnagunean**
Ondoren | **DJ JUSEF**
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa



UZTAILAK 25
OSTIRALA

SANTIXO
EGUNA

10:00 | Pintura lehiaketaren hasiera
Arte Eskolaren eskutik

13:00 | Okela eta Sagarmina txakolin dastaketa Goiko plazan

14:00 | Pintura lehiaketaren sari banaketa Zabielen

18:00 | KUKAI dantza konpainiaren EUSKORLEANS ikuskizuna Goiko plazan

19:30 | Bertso-saio musikatua txosnagunean
Gai jartzailea: Malen Aldalur
Bertsolariak: Maddi Ane Txoperena
Amaia Iturrioz
Maddi Sarasua
Aroa Arrizubieta
Musikariak: Manex, Onintza eta Gari
Antolatzailea: Bizixo jai konpartsa

AURREKONTUAK

Dirulaguntzak: 9.340 €

Bizixo jai konpartsa (5.000€), Mandazketa elkarte (1.000€), Erraldoi eta Buruhandien konpartsa (340€) eta Hogar del marinero elkarte (600€)

Programak: 1.600 €

Komunak: 6.600 €

Haur Parkea: 4.785 €

Zezen ikuskizunak: 8.084 €

Zezenak (3.200€), albaitaria (900€), hesiak (1.600€) eta anbulantziak (2.384€)

Ikuskizun piroteknikoak: 7.151 €

suak (6.000€) eta anbulantzia (1.151€)

Aseguruak: 3.000 €

Kontzertuak: 44.054 €

DJ Rikki (3.000€), Fan and Go (1.800€), Süne (14.520€), Go!azen (4.510€), Kukai dantza konpainia (5.450€), Produksioa, pertsonala, soinu eta argi ekipoa (11.050€)

Haur ikuskizuna: 1.760 €

Sariak: 625 €

Okela eta txakolin dastaketa: 3.000 €

Aire libreko pintura lehiaketa: 2.300 €

Afariak: 600 €

Sgae: 3.000 €

Publizitatea: 1.500 €

MUTRIKU HERRIA MUTRIKU MAITIA MUTRIKU GURIA

Kristo zulotik Arno bitarte,
daukagu Mutriku herria.
Gipuzkoako txoko txikia,
bainan bihotzez haundia.

Umetatikan sortzen zaizkigu,
doinu ta abestien griña,
herri polit eta baketsu honetan,
betiko bizi bagiña.

Mutriku herria,
Mutriku maitia,
Mutriku guria

Umore onez jokutzen degu,
ia egun gehienian,
uxatzen degu gure aurretik,
ekaitza datorrenian.

Ontziak kaian, Txurruka plazan,
kale baserri txuriak,
langile zintzo ta arrantzaliak,
hauxe da Mutriku herria.

Mutriku herria,
Mutriku maitia,
Mutriku guria



UDAKO AGENDA

ABUZTUA

Udako kultur ikuskizunak

OLAIA INZIARTE KONTZERTUA

23:00

Txurruka plaza

02

Udako Zinema Kalean

ROBOTIA

22:00

Zabiel plaza

06

Danok Bat

MUTRIKUKO ARDO JAIALDIA

19:00

Mirualtz Frontoia

07

Udako kultur ikuskizunak

MARIACHI IMPERIAL DE GUANAJUATO KONTZERTUA

23:00

Txurruka plaza

09

Herriko ekoizleen

MERKATU TXIKIA + ARTISAU ETA SORTZAILE AZOKA

11:00-14:00

Portua

09

Udako Zinema Kalean

DRAGOI JAGOLEA

22:00

Zabiel plaza

13

Udako Zinema Kalean

WONKA (GAZTELERAZ)

22:00

Zabiel plaza

20

Herriko ekoizleen

MERKATU TXIKIA + AZOKA EKOLOGIKOA

11:00-14:00

Portua

23



MUTRIKUKO JAIETAN ERE ERASO MATXISTEI PLANTO!

Eraso matxisten aurrean, arretarako zerbitzuak:

LARRIALDIAK

112

SATEVI

Emakumeen aurkako Indarkeriaren
Biktimentzako Telefono

900 840 111

SFUS

Gizarte larrialdien koordinazioko
foru zerbitzua

943 22 44 11
(24 ORDUTAN)

**ERASO MATXISTEN
ARRETARAKO
ZERBITZU
TELEFONIKOA**

679 162 507

uztailak 19 eta uztailak 24
(10:00etatik 10:00etara)

UDALTZAINGOA

679 162 500

**ERTZAINZA
(EIBAR)**

943 53 17 00

(24 ORDUTAN)

MUTRIKUKO GIZARTE ZERBITZUAK: 943 19 50 81



Mutrikuko Udala

ondo pasa Malenak!
gora Mutriku!